

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2023ko apirilak 21 · 1267 zenbakia



DANTZA EGITEN DUEN HERRIA

ZURE BETAURREKO
PROGRESIBO EKIN
LENTE OKUPAZIONALAK
OPARI

Bulegoan lan egiteko perfektuak



Bidebarrieta, 2
943 20 05 22
EIBAR



eskatu hitzordua WhatsApp bidez

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

ATE IREKIAK



APIRILAK 26
GOI MAILAKO
ETA ERDI MAILAKO
ZIKLOAK

17:00



F

- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA



M

- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- MERKATARITZA JARDUERAK



A

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arazaldez
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA



ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN



I

- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA

1000 MAILAKO ZIKLOAK 1000 MAILAKO ZIKLOAK

www.uni.eus

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | ikaskuntza@uni.eus | [uni.eus](https://www.uni.eus)



LANBIDE
HEZIKETA
FORMACION
PROFESIONAL

HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILA

- Mekanizazioa
- Mantentze-lan elektromekanikoa

GOI MAILA

- Fabrikazio mekanikoko diseinua
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Mekatronika industrialia

ESPEZIALIZAZIOAK

- Fabrikazio aditiboa
- Errendimendu handiko mekanizazioa
- Makinen doitze eta prestakuntza aurreratua

ATE IREKIAK
Maiatzak 6
Maiatzak 17



GORDE TOKIA!



943 74 41 32

zikloak@imh.eus

www.imh.eus/zikloak

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Txontako La Plazoleta, Errebal Bizirik eta Ez lurperatzen gaituen paseoari-Ekialdea Bai auzo elkarteek agerraldia egin zuten martitzen arratsaldean, Urkizuko parkean, hainbat bilera egin eta gero lankidetzan eta auzolanean aritzeko asmoa dutela jakinarazteko.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarterea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Astean esanak



Ume batentzat ez dela egokia horrelako sari bat jasotzea? Hori eskolan eta komunikabideetan tratatzen duten araberakoa izango da. Sari batek ez duelako zertan berez kaltegarri izan ume batearentzat. Gizarte bezala larregi infantilizatzen ditugu umeak, bai egiten dituzten galderetan, bai euren hausnarketetan; ez dugulako asimilatzen euren ahalmen intelektuala heldukoon parekoa dela. Gauza batzuk adierazteko lengoia edo prezisioa faltako zaie arlo batzuetan, baina euren hausnarketak neurri berekoak dira. Behin baino gehiagotan sakonagoak ere izan daitezke, guk betierekotzat ematen dugun mundua eurak deskubritzen dihardutelako.

ESTIBALIZ URRESOLA, zine-zuzendaria

Erljioak ez du zertan tabua izan komikoki tratatua izaterako orduan. Gure kulturako parte direnez, gizarte osasuntsu batek onartu behar ditu halakoak naturaltasunez. Andaluziarra naiz, baina TV3ko sketch-ak ez dit minik eragin. Andaluziako Xuntaren erantzuna neurritz kanpoko irudituz zait. Aratosteetan, hemen bertan, kultura eta erlijioa ardatz hartuta parodia ugari egiten dira, Katalunian baina askoz harago doazenak, eta inori ez zaio okurritu kexatzerik.

NATALIA MELENDEZ, Malagako Unibertsitateko irakaslea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONTZI → Sukaldeko tresna. “Soperia lazkotxe kirten bateko ontzi haundi bat”. Barku, itsasontzi. “Badira gaur hirurogei milla tonelada eta gehixagoko ontzixak”.

1956

Lehen Jaunartzea San Andres parrokian

Plazaolaren argazki honi begiratuta, begibistakoa da XX. mendearen erdialdean orain baino askoz ere ume gehiago jaiotzen zirela Eibarren. Gainera, sasoi hartan ia guztiek egiten zuten Lehen Jaunartzea.



Farmaziak

BARIXAKUA 21
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 22
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
DOMEKA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 24
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 25
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 26
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 27
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
BARIXAKUA 28
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ BETI, 2023an, Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Balbina Iruguenpagate Arizmendiarieta.** 92 urte. 2023-04-12.
- **Emilio Alvarez Cid.** 73 urte. 2023-04-13.
- **Elias Lorenzo Blanco.** 86 urte. 2023-04-13.
- **Jose Fernandez Delgado.** 72 urte. 2023-04-13.
- **Ramiro Zaballa Martinez.** 93 urte. 2023-04-13.
- **Luisa Rodriguez Hidalgo.** 74 urte. 2023-04-13.
- **Isabel Escudero Martin.** 91 urte. 2023-04-16.
- **Dionisia Lopez Sanchez.** 91 urte. 2023-04-16.

Jaiotakoak

- **Aitor De la Puente Urresti.** 2023-04-03.
- **Rayan El Majjaoui.** 2023-04-04.
- **Amira Sabbar Toulliss.** 2023-04-04.
- **Manex Aranzadi Cabo.** 2023-04-05.
- **Lara Garcia Uberetagoena.** 2023-04-05.
- **Elene Mujika Lopez.** 2023-04-06.
- **Naia Larreategi Hernandez.** 2023-04-10.
- **Paul Grande Romero.** 2023-04-13.
- **Abrar Aghbalou.** 2023-04-14.
- **Yoel Silva Rodriguez.** 2023-04-14.
- **June Barbero Zubeldia.** 2023-04-15.



“Eibarren Bizi” ailegatu berrientzako harrera-programa egingo da maiatzean

“Eibarren Bizi” atzerriko jatorria duten biztanle berrientzako harrera-programaren bigarren edizioa egingo da maiatzaren 12tik 24ra, Udalaren Immigrazio eta Kultur-Aniztasunaren Unitatearen eskutik. Programa urtean hirutan (urtarrilean, maiatzean eta irailean) garatuko da, eta aldi bakoitzean sei informazio-saio egingo dira. Saio horietan, gizartean subjektu gisa

integratzeko atzeritarrentzako funtsezko alderdi izango direnak azaldu eta landuko dituzte zenbait adituk. Maiatzaren 12an, 15ean, 17an, 19an, 22an eta 24an egingo dira, 10:00etatik 13:00etara, Portaleko 3. solairuko ikastaro gelan. Parte hartu nahi dutenek Gizarte Zerbitzuen Sailean (Portaleko 4. solairuan) eman behar dute izena, maiatzaren 9rako.

Apirilaren 27an hasiko da Antxintxika Eibar klubentzat erronka, ekitaldi bereziarekin

Udalak ‘Antxintxika Eibar: Klubak’ erronka antolatu du Wellk startup-arekin batera, eibartarren artean jarduera fisikoa sustatzeko eta herriko kirol-talde eta gimnasio ezberdinetako pertsonen arteko interakzioa bultzatzeko. Erronkan herriko 11 klub/gimnasio hartuko dute parte eta bete beharreko helburua sinplea da: jarduera fisikoa eginez, klubetako kideek ahalik eta kilometro gehien egitea. Hau da, parte-hartzaileek klub baten ize-nean hartuko dute parte eta egiten

dituzten kilometroak klubaren kilometro kopuruari gehituko zaizkio. Horretarako teknologia izango dute lagun, Wellk-ek prestatutako aplikazioaren bitartez, eta pauso hauek jarraitu behar dira parte hartzeko: 1) Wellk aplikazioa deskargatu; 2) App-ean erregistratu; 3) “Erronkak” atalean sartu; 4) Ekipoetan, “Talde batera batu”; eta 5) Zure klubaren kodea sartu. Erronka apirilaren 27an hasiko da. Horren harira, ekitaldia egingo da Untzagan, 18:00etan.

Posta bidez bozka eman nahi dutenentzat laguntza emango dute Batzokian

Eibarko EAJ-PNVtik gogorazi nahi dute datorren maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskundeei begira posta bidezko botoa egiteko epea zabalik dagoela. Horrenbestez, egun horretan Eibarren egongo ez direla badakitenak aurretik bozkatzera animatu nahi dituzte. Era berean, jakinarazi nahi dute hautetsontzira joateko ezintasuna dutenek botoa etxetik emateko aukera dutela, “notarioarekin eta ezelako kostu barik”. Botoa posta bidez edo notarioarekin egiteko interesa dutenei laguntzeko, Batzokian (Ego Gain 1, 1. D) egongo dira, astelehenetik barixakura (11:00etatik 13:00era eta 18:00etatik 20:00etara), maiatzaren 18ra arte. Bestela, 943120616 telefonora deitu edo eajpnveibar@gmail.com postara idatzi daiteke.



Posta bidezko bozkarako informazioa Bilgunean

Eibarko Bilgunea (Bista Eder, 2) zabalik egongo da datozen udal hauteskundean posta bidezko bozkari buruzko informazioa emateko. Astelehenetik eguenera 17:30etik 19:30era zabalduko dute, eta eguaztenetan, berriz, aipatutako ordutegian ez ezik, goizez ere irekiko dute, 11:00etatik 13:00era.



Ego Gain konpontzeko lanek aldaketak eragin dituzte hainbat zerbitzutan

Ego Gain kalea eta inguruak berantolatzeko eta berrurbanizatzeko lanak direla eta, astelehenaz goerotik hainbat aldaketa egon dira autobus zerbitzu batzuetan: Eibar-Arrasate-Gasteiz, Eibar-Gasteiz (urtegitik), Eibar-Arrasate eta Eibar-Bergara-Arrasate-Eskoriatza lineak Untzaga plazako geltokitik irtengo dira lanak amaitu arte (bost bat astetan), eta ez Ego Gainen. Ego Gainetik. Eta linea horien amaiera, Eibarrera iristen direnean, San Juan kaleko geltokian izango da, eta ez Ego Gainen. Nolanahi ere, linea horien ordutegiek ez dute aldaketarik izango.



Arragueta kalea Arikitzanetik Urkizuraino konpontzeko proiektua aurkeztu du Udalak

Udalak eskura du dagoeneko Arragueta kaleko birgaitze-proiektua eta horren aurkezpena egin dute aste honetan Jon Iraola alkateak eta Alberto Albistegi Obra Saileko zinegotziak, dokumentua Obra Batzordean aurkeztu eta gero. Esandakoaren arabera, izaera estrategikoa duen jarduketara bat da, eta espazio hori berrurbanizatzea ahalbidetuko du, "irigarritasuna eta komunikazioa hobetuz, oinezkoentzako tokia irabaziz, eta, gainera, espaloiak eta galtzada eraberrituz". Egitasmoak

Arragueta kalearen arteko bidegurutzetik Urkizuraino eta Bit-tor Sarasketa kalerainoko tartean egingo diren lanak jasotzen ditu. Kale horretako eraisketak "nahi baino gehiago" atzeratzen ari direla onartu du Iraolak, baina argindarra etxeetara eramateko kablea lur azpitik sartzeko lanak egin behar dituzte ezinbestean. Une honetan, eraikinen jabeak Iberdrolak aurkeztu dien aurrekontua onartzeko zain daude.

FUNEUSKADI
Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixillon, 1/n. SIGMA Industriaidea (Glasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ernuako bulegoa: Marqués de Valdeipina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ernea · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Javier Gorosabel Urkia "Firi"

8. URTEURRENA
2015/04/21

"Zure indar eta kemena gogoan elkarrekin izandako une zoragarriak ahoan konpartitzen ditugu sarri sutondoan"

- ZURE LAGUNAK -



Elkarte bakoitzak bere izaera propioa izan arren, elkarrengandik ikasi nahi dute, beraien auzoetan dauden premiei modurik egokienean erantzuteko. SILBIA HERNANDEZ

Auzoko Elkarteen Mahaia eratu dute, ekialdearen alde auzolanean aritzeko

Agerraldian esan zuten, “ibilbide eta jaiotza desberdinak dituzten hiru elkarte gara, baina bakoitzak bere esperientziatik lan egiteko eta ekarpenak egin nahi izateko gogoak batzen gaitu. Eibarko ekialdeko auzoen behar eta gabezia ugariak ikusarazteko auzolanean jardun nahi dugu”. Asmo horrekin, hiru elkarteek “Auzoko Elkarteen Mahaia” eratzea erabaki dute, “esperientziak trukatu, bateratutako ekimen berriak garatu, eta horien jarraipena egiteko ere, auzotarren benetako kezkei eta degradazioari erantzun nahian. Azken urteotan ekialdean gertatzen ari den denda, zerbitzu eta bizi-kalitate galera nabarmenari aurre egitea nahi dugu”. Ildo

horretan, ekialde osora zabaldu den “abandonu-egoera” salatu nahi dute, “eta gure hiriaren benetako biziberritzea eskatzen dugu. Gainera, Udalarari gardentasuna eta parte-hartzea eskatzen dizkiogu, gure auzoetako obra garrantzitsuetan. Euskadiko Auzitegi Nagusiak geldiarazi zuen Txontan 1.100 etxebizitza eraikitzeako proiektua, eta esperientzia horrek balio behar digu akats berberak berriro ez egiteko”.

Gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen alde

Herritaren behealdeko kaleak horren kaltetuta egotearen erantzukizuna Udalarena dela diote, “ez dituelako gauzak ondo egin”. Gainera,

Txontako La Plazoleta, Errebal Bizirik eta Ez lurperatzen gaituen paseoari-Ekialdea Bai auzo-elkarteek agerraldia egin zuten martitzenean, Urkizuko parkean, hainbat bilera egin eta gero lankidetzan eta auzolanean aritzeko asmoa dutela jakinarazteko.

Bideoa ikusteko



“gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen aldeko apustua” egiten dute, gatazkak bideratzeko tresna gisa. “Gure ustez, herritarren parte-hartzea eraginkorra izan dadin, entzuteko borondatea egon behar da, eta ez da hori udal honetan aurkitzen ari garena”. Zentzu horretan, proiektuen inguruko informazioa eskuratzeko oztupoak jartzen dizkietela ere salatu dute.

Agerraldian argi laga nahi izan zuten, “hiru elkarteetako bat ere ez gaude alderdi politiko bati lotuta”. Herri-mugimendu gisa auzoaren alde lan egiten jarraitu nahi dutela azpimarratu zuten: “Hiru elkarteetako bi, Eibarko Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordeko kide gara. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra zaharkituta geratu da, erakundeen utzikeriagatik, eta 15 urte daramatza eibartarren beharretara egokitu gabe. Horregatik, ziur gaude indarrak batzeko ueña dela, eibartar askoren ahotsa entzun eta kontuan har dadin, ekintza bateratu eta koordinatuen aldeko apustu sendoa egin”.



Neska gazteentzako autodefentsa ikastaroak Ipuruako merkatu plazan

Neska gazteei zuzendutako autodefentsa feminista ikastaroak eskainiko dira Ipuruako Merkatu Plazan. Zapatu honetan, apirilaren 22an, izango da lehenengoa; goizeko 11:00etan hasi eta 14:00ak arte iraungo du. Hurrengo ikastaroa ekainaren 4an izango da eta horretan 10 eta 13 urte bitarteko neskek parte hartu ahal izango dute. Izena emateko ipuruakomerkatu-plaza@gmail.com helbidera idatzi behar da.



Jabetze Eskolako ikastaroetan onartu dituztenen zerrendak

Udaberriko Jabetze Eskolako ikastaroetan onartutakoen zerrendak argitaratu dituzte udalaren webgunean. Antolatutako ikastaro bakoitzaren gainean sakatuz, eskainiko diren ikastaro desberdinetan parte hartzeko onartu dituzten emakumeen zerrendak ikus daitezke.

Ermutik Eibarrera datozenentzat Estaziñoko sarbidea itxi dute, lanengatik

Euskal Trenbide Sareak Estaziño eta Azitain arteko trenbidearen estalduraren lanerako kontratatu duen enpresak N-634 saihebidetan mozketak egin behar du eta, hori dela eta, maiatzaren 9ra arte, Ermua-Eibar noranzko errailaren Estaziñoko sarbidea itxita egongo da, alde horretan dagoen parkean ingo diren lanen ondorioz. Gai-

nera, eremu horretan sarbide berria prestatu da, obraren kamioiak eta beste gailuak sartu ahal izateko. Beraz, Ermutik datozenek beste edozein sarbide hartu beharko dute. Horrekin batera, saihebidetaren aldamenean dagoen oinezkoentzako bidea ere itxita egongo da, inguruan dabilen jendearen segurtasunerako.

Ardantzan aparkalekuetarako eraikina egiteko proiektuaren erredakzioa

Udalak Arquitecturay Ordenación Urbana SL enpresari adjudikatu dio Ardantzan aparkalekuetarako eraikin bat egiteko proiektuaren idazketa. Egitasmo horri esker, 50 aparkaleku-plaza baino gehiago

jarri ahal izango dira herritarren esku. Proiektuaren erredakzioa 49.370 eurotan (BEZa barne) esleitu eta gero, enpresak hamahiru asteko epea dauka proiektua lantzeko.

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMIAK
Enkarguak etxera

1931ko apirilaren 14 hura gogoan

Orain dela 92 urte Bigarren Errepublika Eibarren beste inon baino lehen aldarrikatu zela gogoratu dute aurten ere Eibarko PSE-EE alderdikoek apirilaren 14an. Goizean Untzagako Herriaren Etxeko balkoian bandera igo eta gero, eguerdian Txaltxa Zelaian txapliguak bota zituzten sozialistek. Eta hurrengo egunean, "Errepublika Martxan" goiburuari jarraituta, Ermutik Eibarrera oinez etorri ziren PCE-EPK Euskadiko alderdi komunistakoak eta, Untzagan bandera igo eta gero, ekitaldi politikoa egin zuten Ezker Anitza-IUrekin batera.

Bideoa ikusgai gure
YouTube kanalean



ERRENTA AITORPENAT AURTEN ERE, DUDA BARRIK, CUSKARAZI

LEHIAKETA! IRABAZI SARIAK

Lotu definizioak kontzeptuetan eta bidali emaitzak elbarrenekeba@gmail.com-era. Osatzen dutenen artean Coliseorako eta museorako sarrerak zozkatutako dira. Epea: maiatzaren 19a.

ESABARRIEN BARRITZ AURTEN 1.700€

1 Ordainkizunetan kentzen den kopurua.

2 Sozietate anonimoetan, markinetatik akzioedunei banatzen zaien zatia.

3 Zerbait edo norbait aipatzen den lege, arau edo multzotik at utzi edo uzten dela adierazi.

4 Zergak ordaintzea dagokion pertsona.

5 Ordainketa batetik, eta, bereziki, soldata batetik, zerga gisa kentzen den zenbatekoa.

6 Norbaiti zerbait, batez ere dirua, zor dion pertsona.

7 Norbaitek une jakin batean dituen ondasunen multzoa.

8 Norbaiti, borondatez eta ordainetan saririk hartu gabe, zerbait ematea; horrela ematen den gauza.

Atxikipen

Dibidendu

Kenkari

Ondare

Zergadun

Zordun

Salbuetsi

Dohaintza

Zure negozioa garatzeko arlo ezberdinetan aholkularitza adituaren bila zabilta?

EHUNDU
EKINTZAILITZA PROGRAMA

+ 80 orduko aholkularitza, zuk erabakitako galetan

EMAN IZENA!



ZU ERE TANTAN

MAIATZAK 19



“Niretzat Irun eta Hendaia artean ez dago mugarik, baina pertsona beltz batentzat bai”

NAIARA GUTIERREZ • Zehar Errefuxiatuekin



Hilaren 25ean, 18:30ean, 'Ipar basatia' dokumentala egongo da ikusgai Coliseo antzokian. Zehar errefuxiatuekin elkarteak Al Borde Filmsekin elkarlanean sortutako lana da eta Irun-Hendaia eta Mexiko-AEB arteko mugen artean bidaia egiten du, gerratik ihes eta babesleku bila dabiltzan pertsonen bizi dutena azalduz.

Dokumentala eskaini ondoren, lanaren eta gaiaren inguruan solasaldia egiteko aukera egongo da eta bertan izango dira, besteak beste, Zehar Errefuxiatuekin elkarteko kideak. Naiara Gutierrez da elkartearen komunikazio arduraduna eta dokumentalaren gidioan eta ekoizpean lan egin du.

Dokumentala egiteko ideia Zehar Errefuxiatuak elkartetik sortu zen, baina zein asmorekin?

Zehar Errefuxiatuekin elkartetik hainbat urte darmatzagu lanean erbestera jo zuten herritar asko izan zituen herrialde baten inguruko memoria historikoaren eta gaur egun Euskal Herrian babesleku bila dabiltzan edo Euskal Herria zeharkatzen duten errefuxiatuen inguruan. Arlo bien artean paralelismoa egiten dugu, bi sasoi, testuinguru politiko eta toki oso ezberdinak direla aintzat hartuta. Hala ere, erbesteratzeari, iragarteari (batzuetan oso modu biolentean), beste herrialde batera heltzeari eta harrera prozesuei dagokienez antzeko bizipenak daude. Dokumentala lan-ildo horretan kokatzen da. Lengoaia zinematografikoaren bitartez ohikoa ez den diskurtso batekin eta narratiba ezberdinekin publiko guztiengana iristea izan da asmoa. Horretarako, Al Borde Films ekoiztetxearekin

elkarlanean ibili gara, urte askotako lanaren emaitza izan den *'Ayer también huimos'* ikerketa ikus-entzunezkoen bitartez islatzeko.

Nolako prozesua jarraitu duzue ikerketa hori dokumental bihurtzeko?

'Ipar basatia' proiektu ederra izan da, oso dotorea sormenaren arlotik eta konplexua sarritan. Konplexua arrazoi askorengatik. Batetik, zaila izan delako paperean genuen ideia ikus-entzunezkoen bitartez irudikatzea. Eta bestetik, dokumentala grabatzen ari ginen bitartean COVID-19aren pandemiak harrapatu zigulako. Grabaketa-prozesua zaila izan da. Dokumentalaren zati bat Ipar Euskal Herrian grabatu genuen eta elkarriketa batzuk Emmanuel Macronek bigarren itxialdia dekretatu eta mugak itxi aurretik egin genituen; eta Mexikoko grabaketa bereziki izan da zaila. Berez zaila bada herrialdeen arteko mugetan grabaketak egitea, batez ere Mexiko eta AEB artean, pandemia sasoiaren are gehiago.

Pandemiak nola zaildu du berez zaila den egoera hori?

Pandemiaren ondorioz herrialdeen arteko mugak itxi egin zituzten eta, ondorioz, pertsonak ez ziren herrialdeetara iristen, baina ez zen errefuxiatuak ez zegoelako, tamalez mundu guztian zehar baitaude. Ohikoena da errefuxiatuek gerrerengatik edo gatazka-armatuetatik



“Askotan errefuxiatuei gizatasuna kentzen diegu eta ‘jende-olde’ moduko terminoak erabiltzen dira, besteak beste”

“Gaur egungo eta orain dela hamarkada batzuetako migratzaileen kontakizunak ez dira oso ezberdinak”

ihes egitea euren herrialdeetatik, baina arrazoi gehiago daude (jazarpen sistematikoa, indarkeria matxista, behartutako ezkontzak, mutilazio genitala, sexu esplotazioa...). Erdialdeko Amerikan, adibidez, krimen antolatutik (marak eta bestelako gaizkile-taldeak), narkotrafikutik, estatuen biolentziatik, enpresa transnasionalek eragindako egoerengatik eta abarretatik ihes egiten dute. Arrazoi horiengatik guztiengatik, pandemia aurretik, pandemian zehar eta pandemiaren ondoren askok euren herrialdeetatik ihes egiten dute. Pandemiaren zehar mugak itxi zituztenez, migratzaile asko Giza Eskubideak urratzen diren herrialdeetan (Libian edo Marokon, adibidez) edo mugetan harrapatuta geratu ziren (dokumentalean ikus daitezkeen bezala), eta horrek prozesua are gehiago zaildu zien mugetan militarizazio-prozesuak ematen diren sasoi hauetan.

Dokumentala Irun-Hendaia eta Mexiko-AEB arteko mugetan kokatu duzue. Zergatik?

Hasiera batean badirudi muga biak ez direla konparagarriak, baina Giza Eskubideak urratzen dira toki bietan. Niretzat Irun eta Hendaia artean ez dago mugarik, baina pertsona beltz batentzat bai eta, ziurrenik, zubia gurutzatzen duenean gelditu eta itzuli egingo dute. Hau hemen gertatzen da, gure begien aurrean; baina bestetik, Gerra Zibilean zehar harrera-politika

atseginak izan zituen Mexikon gaur egun zer gertatzen ari den ikusi nahi izan genuen.

Kasu bietan migrazio fluxua iparralderantz ematen da eta, izenburuaren arabera, iparralde hori basatia dela diozue. Zergatik?

Izenburua oso egokia dela iruditzen zaigu. Migrazio-, erbeste- eta babes-prozesuak ziklikoak dira. Gerra Zibilaren testuinguru horretan iparraldekoak gaur egun hegoalde globala bezala ezagutzen den herrialdeetara erbesteratzen ziren (Mexikora, Venezuelara...); gaur egun, ostera, alderantziz gertatzen da eta hegoaldekoak iparraldera erbesteratzen dira. Baina, iparraldea zergatik da basatia? Askotan errefuxiatuei gizatasuna kentzen diegu eta horregatik erabiltzen dira ‘jende-olde’ moduko terminoak, besteak beste. Diskurtso xenofoboek diote pertsona basatiak direla, baina ez da horrela, basatia iparraldea da; mugak, biolentziak eta politikak dira basatiak. Hortik dator dokumentalaren izenburua.

Nola moldatu zarete prozesu zailak bizitzen ziharduten migratzaileak elkarrizketatzeko?

Gure egunerokoa migratzaileei laguntzea da. Arrazoi gogor ezberdinengatik egiten dute ihes, inork ez du hori egin nahi. Erbestea inorentzat ez da atsegina. Beraz, gaur egun hona iristen direnekin egin dugu berba eta



Migratzaileen inguruan jarduteaz gain, herrialdeen arteko mugak ditu izpide 'Ipar basatia' dokumentalak. IPAR BASATIA

orain dela urte asko erbestera joan ziren emakumeen testigantzak jaso ditugu Intxorta 1937 elkarteak egin-dako lanari esker. Garrantzitsua izan da euren berbak jasotzea, normalean gizonezkoen esperientziak jaso izan ditugulako. Gaur egungo eta orain dela hamarkada batzuetako migratzaileen kontakizunak ez dira oso ezberdinak. Adibidez, berdin sentitzen dute erbestertzearen deserrotzea, itzultzeko desira dute, arrazismoa aurkitzen dute espazio batzuetara heltzerakoan (lana edo etxebizitza bilatzerakoan, adibidez) eta harrera egiten dien gizartearen berotasuna eskertzen dute, besteak beste. Horrek guztiak erakusten digu atzera begiratu behar dugula gaur egun gizarte bezala harrera hobia eskaintzeko.

Zuek bezala, beste elkarte eta gizabanako batzuek lan eskerga egiten dute errefuxiatuei laguntzeko eta bidelagun izateko. Nolako lana egiten duzue eta zer egin dezakezue?

Errefuxiatuen bidelagun diren elkarte batzuekin egin dugu berba dokumentalean. Ipar Euskal Herrian 'Etor-kinekin' elkartarekin egon ginen, adibidez. Gainera, Mexikon bi aterpetxetan egon ginen, bata herrialdearen erdialdean dago eta bestea muga inguruan, eta migratzaileei ibilbidean zehar laguntzen dieten gizabanakoak

eta elkarreak ezagutu genituen (El Saltiloko migratzaileen-etxea, adibidez). Dokumentalean laguntza horren garrantzia ikusten da. Izan ere, migratzaileek oso ibilbide biolentoa egiten dute euren jatorriko etxetik Mexikoraino eta, gero, AEBraino, eta eurentzat migratzaileen-etxeak arnaguneak dira lo egiteko, atseden hartzeko, lege-aholkularitza jasotzeko eta bidaiarekin jarraitzeko. Kasu askotan, bidaiak 'La Bestia' izeneko trenean egiten dute. Mexiko gurutzatzen duen trena da eta igo direnek ibilbidean zehar bizi izandako indarkeria egoera ugari kontatu dituzte. Pertsona migratzaileei laguntzen diegun elkarten lana haiei laguntzea da, arnagune eta segurtasun tokiak izatea, laguntza psikologikoa eta soziala eskaintzea, eta euren bizitzarekin jarraitzeko laguntza ematea. Batzuetan pentsatzen dugu toki batera iristean euren bidea amaitu egin dela, kitto, baina kasu bakoitza ezberdina da eta askorentzat zaila izaten da bizitza berria hastea.

Coliseoko saioan, dokumentala eskaintzeaz gain, nolako solasaldia eskainiko duzue?

Dokumentalean azaltzen diren kontuak izango ditugu mintzagai eta, noski, bertaratzen direnek edozein gauza galdetzeko aukera izango dute, dokumentalaren zein errefuxiatuen errealitatearen inguruan.



JON MIKEL MUJIKA

Hondoratuta

Aste Santuko oporretan Ozeano Atlantikoko itsas bizitza bertatik bertara ezagutzeko aukera izan nuen. Azoreetako Pico uhartearen hegoaldeko Lajes izeneko herrixka batetik abiatuta, hiru ordu inguruko osteratxo bat egin genuen txalupa txiki batean.

Irten eta berehala, itsasertzetik apenas urrundu gabe, lehen itsas animaliak ikusten hasi ginen. Izurdeak. Lehenengo bat, gero beste bat... konturatu orduko gure ontzia uretako ugaztun jostari horietaz inguratuta zegoen. Bertako gidak kontatutakoaren arabera, gure inguruan jauzika zebiltzan izurde haiek talde handietan elkartzen dira, oso animalia sozialak dira eta gustuko dute ontzietara hurbiltzea. Eta bai, hala zen, ontziari bueltaka, uhinetan jolasean, guztiz lotsagabe aurkezten ziren gure aurrean.

Izurdeak alde batera utzi eta irteerako helburu nagusia zenaren bila abiatu ginen, baleak. Ur azpiko mikrofono antzeko gailu bat erabilia oso era azkarrean kokatu zituen gure gidak gugandik oso urrun ez zebilen balea baten soinuak. Bertara gerturatzen ari ginela kontatu zigun, balea espezie hark 50 minutu inguruko murgilaldiak egiten zituela. Ur azalean 5 minutu inguru besterik ez omen dituzte pasatzen balea hauek arnasa hartzen eta berriro murgiltzen dira. 20 metro luze inguruko izaki hauek ur azalean ikusteko zortea izan genuen, ederra izan zen, baina oso denbora gutxi ikusi genituen. Balea bat ikusten genuen aldiro, segituan murgiltzen zen ur sakonetako ilunpeetara.

Balea hauen agerraldiek azken aldian euskarak gure herrian bertan sufritu dituenak ekarri zizkidan gogora. Lan publikoetarako euskara eskakizunak piska bat zorrotzen hasi orduko, han non agertu den “justizia” esanez gehiegizkoak direla, euskara berriro ere ilunpera Euskal Herriko itzulian, euskal talde bat, euskal telebistan, euskaraz hasi eta hara non hasi den kazetari espainiar bat gaztelera jatorrean egiteko eskatuz, euskara berriro ere hondora.

Iritsiko ote da euskara, bere herrian, izurde jostariak bezala aske eta lotsagabe ibiliko den eguna?

“Iritsiko ote da euskara, bere herrian, izurde jostariak bezala aske eta lotsagabe ibiliko den eguna?”

Argazki-lorategi bihurtuko dute herria maiatzean

Bi hamarkada atzean lagata, Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek maiatzaren 5ean abiatuko dute Argazkilaritza Maiatzean-eko 21. edizioa. Hilabetea amaitu arteko ohiko hainbat erakusketa ikusi ahal izango da gurean, kalean egingo diren beste ekitaldi batzuekin bilduta eta azken unean dataz aldatu den tailerrarekin batera.

Maiatzeko lehenengo barixakuan, hilaren 5ean, zabalduko dira herritik banatuko diren erakusketa guztiak, 18:30ean, eta 28ra arte egongo dira ikusgai. Portalea, jakina, izango da erakusketa gehien hartuko duena, laurekin. Bertan egingo dute antolatzaileek ekitaldi ofiziala, “gero bertatik Topalekura

joan, bertako erakusketa zabaldu eta pintxo batzuk hartzeko”. Untzagako Jubilatuen Etxean, Portalea tabernan eta Klub Deportiboan bertan izango dira bestelako erakusketak. Erakusketez gain, betiko lez, hainbat jardunaldi ere izango dira argazki-zaleentzat gozagarri: inaugurazioa egin eta hurrengo egunean, hilaren 6an, Portalean

euren lanak erakutsiko dituzten Enric de Santosek eta Natxo Zenborainek hitzaldia eskainiko dute. Handik zortzira, hurrengo zapatuan, Topaketak Kalean saioak hartuko du lekua Untzagan, erretrato eta argazki-erakusketen hainbat arlorekin kalea hartzeko. Hurrengo asteburuak pisu berezia hartuko du Argazkilaritza Maiatzean-en



Klub Deportiboko argazkilaritza taldekoek 21.enez antolatu dute hilabetea.

programazioan. Zapatuan, hila-
ren 20an, eskainiko du bere taile-
rra Txema Lakunzak (eta ez 7an,
hasieran iragarrita zegoen bezala)
eta hurrengo egunean, maiatzaren
21ean, argazki-rallya egingo dute
goizetik, zuri-beltzean eta digita-
lean, modalitate bietan. Txema La-
cunzaren tailerrean parte hartzeko
izen-ematea zabalik dago eta ez da
komeni gerorako lagatzea, parte
hartuko dutenen kopurua mugatu-
ta dago-eta: interesatuek argazki-
laritza@deporeibar.com helbidera
jo dezakete eta ordaindu beharreko
prezioa 20 eurokoa da.

Lau maisu Portalean

Portalean bere lanak erakutsiko
duen laukotea Rober Astorgano,
Enric de Santos, Natxo Zenborain
eta Aitor Aranak osatuko dute. Az-
ken hori Indalezio Ojanguren lehia-
ketako azken edizioko irabazlea da
eta “Bizitzaren nire istorioak” izene-
ko erakusketa hiru ataletan banatu
du: “Eskuak”, hirugarren adineko
egindako omenaldia, egoitza bateko
egoiliarrek euren eskuekin konta-
tzen dituzten bizitzekin; “Gernika...
amesgaiztoa amesten”, Gernikako
bonbardaketen inguruan egilearen
amak kontatutako oroitzapenei
bizitza ematen diena; eta “Irudi
bat... istorio bat”, bertako errelatoa
irudi bakarrean laburtzeko. Rober
Astorgano errioxarrak berak bizi-
tako esperientzia erakusten digu
“Lotsaren exodoa” lanean; hor Ido-
meni, Atenas, Lesboseko uhartera
eta Serbia eta Kroaziaren arteko
muga bezalako lekuetan bizi izan
den migrazio- eta giza-krisia do-
kumentatzen ditu. Natxo Zenbo-

rain iruñearrak lan ikaragarria egin
du argazkilaritza arloan, hainbat
erakusketa aurkeztuz AEB, Ko-
rea, India, Iran, Erresuma Batua,
Maldivas, Egipto, Kanada, Tur-
kia edo Italian; bere lanak hainbat
museotan ere hartu dute lekua eta
sariak lortu ditu Kanadan, Italian
eta Hego Korean. Enric de San-
tos irakasle beteteranoa, bestalde,
Cansson enpresaren argazkilari
enbaxadorea da mundu mailan, HO
España-ren VIP argazkilaria eta

>>> Topaketak Kalean eta argazki-rallya, bakoitza protagonista bihurtzeko paradak

Argazkilaritza Analogikoko Elkartea
Nazionalaren presidentea izateaz
gain; irakaskuntzarako 30 liburu-
tik gora ditu merkatuan eta beste
12 autore liburu, mundu guztian
egindako 150etik gorako erakus-
ketetako katalogoekin.

Gipuzkoa Saria eta Argizaiola

Topalekuko erakusketan Oscar
Bagliettoren lanak egongo dira
ikusgai, “Paisajearen Nire Begi-
radak” izenburupean. Berak dioe-
nez, “nire lanaren laburpen txiki
bat da: paisajea hor dago eta bere
edertasuna berea da, baina nire ka-
mararekin nabarmendu nahi izan
dut”. Untzagako Jubilatuen Etxean
XL. Nazioarteko Gipuzkoa Sarian
saritutako 52 argazkilarien lanak





Tailerra eskainiko duen egilearen argazki bat. TXEMA LACUNZA

egongo dira ikusgai, Klub Deportiboko lokaletan Argizaiola 2022 lehiaketaren 42. edizioan saritutako argazkilarien lanak ikusi ahal izango dira eta, azkenik, Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen lanak Portalea Tabernan ikusi ahal izango dira.

>>> Argazki-tailerra maiatzaren 20an eskainiko dute Kulturean

Hilaren 20an Txema Lacunzak eskainiko duen tailerrean "PhotoShop-ek dituen fusio-metodoetan oinarrituko naiz, batez ere. Aplikatzeko oso metodo erraza da fusio-kapa bakoitzak zelan jokatzeko duen ulertzen badugu", egilearen esanetan. Argazki-moldaketaren ikastaroaren bigarren zatian fusio-modu desberdinez zelan funtzionatzeko duten emango du jakitera, "eta

zelan aplikatzen dizkiedan nire argazkiei modu erraz eta praktikoan".

Giro bikaina taldean

Jose Luis Irigoien Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko partaideak esan digunez, "maiatzeko jardunaldi guztietan kalitatea da lehenesten duguna. Herrian maiatza osoan zortzi erakusketa eskaintzea aldi berean ez da gauza makala nire ustez. Euskal Herri mailan antolatzen dugun hilabetekoa bezalakoarik ez dago, 21 urte dira dagoeneko egindakoak, eta estatu mailan ere ez da maila horretako askorik izango". Aurreko urteetako formatuari eutsi diote oraingoan ere, "gauza eta estilo ezberdinekin, jakina" eta tailerra ere aurreko urteetako osagarria izango da: "Lacunzak argazkiak nola egiten dituen eta nola editatzen duen erakutsiko digu. Garrantzi handia ematen diot metodo desberdinez jabetzeari, teknika ezberdinak ikasiz argazkilaritza bakoitzak aukera gehiago izango dituelako erabakia hartzeko". Tailer hori, dena dela, oraingoan ez da Portalean izango, Arrate Kultur Elkarteko lokaletan baizik.



ARGAZ aldizkari digitalaren 1. zenbakia.

Pozik ikusten zaio Irigoieni Deporreko argazki-taldeak gaur egun duen indarrak: "Aurreko urteotako zenbakiei eusten diegu eta, horrez gain, jende berria ere etorri zaigu, gazteak eta ez hain gazteak. Pan-

demiak izan zuen bere eragina, geldaldi batekin, baina laster erreku-peratu genuen lehenagoko martxa. 20 bat laguneko ekipoa osatzen dugu gure egunerokoan, baina 60 badira izena emandakoak. Guztiak ere bere zaletasunari tinko eutsiz".

Iaz ekimen berria abiatu zuten Deporreko argazki-taldekoek, euren eta besteen lanak erakusteko eta partekatzeko asmoari jarraituta. ARGAZ aldizkari digitalak bosgarren alea kaleratu du orain dela egun batzuk, betiko lez, kalitatezko edukiei helduta: "Aldizkari handia da, 100 orrialde baino gehiagorekin, argazki izugarriak eta egile garrantzitsuak tartekatuz... Hori bai, askotan gertatzen den bezala, laguntza behar da egungo erritmoari eusteko. Juan Antonio Palacios da lan guztiaz arduratzen dena eta lan hori guztia egitea larregizkoa da



Enric de Santos argazkilari beteteranoa.

pertsona bakarrarentzako". Agurtu aurretik gonbitea ere luzatu nahi izan die Jose Luisek argazki munda maite dutenei, "ikasteko, lagunak egiteko eta ondo pasatzeko gunea badelako gurea".

<p>EIBAR-ORBEA Haurreskola</p> <p>B. Sarasketa, 11 / 943200384 orbea.eibar@haurreskolak.eus</p> <p>jaso eta entregatzeko ORDUTEGIA 10:15-11:45</p>	<p>AMAÑA Haurreskola</p> <p>Artegieta, 6 / 943127145 amana.eibar@haurreskolak.eus</p> <p>jaso eta entregatzeko ORDUTEGIA 10:00-11:00</p>	<p>ARRATEKO ANDRA MARI Haurreskola</p> <p>J.A. Iturrioz, 5 / 943202247 arrate.eibar@haurreskolak.eus</p> <p>jaso eta entregatzeko ORDUTEGIA 13:30-14:30</p>
<p>MATRIKULAZIOA APIRILEAN ETA MAIATZEAN</p> <p>irailetik aurrera DOAN</p>		
<p>Eibarko HAURRESKOLAK</p> <p>IZEN EMATEA Eskaerak online eta aurrez-aurre entregatzea Apirilaren 24tik Maiatzaren 16ra</p>		



Herri guztia dantzan jarriko dute hilaren 29an

Apirilaren 29an, zapatua, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko da eta, egun berezi horren aurrean, iaz hasitako ekimenari jarraipena emanez, herriko dantza taldeek egitarau berezia prestatu dute. Horrela, herriko auzo ezberdinetan egongo dira dantzak eskaintzen eta, egunari amaiera emateko, Untzagan ikuskizuna eskaini ondoren, erromeria egongo da.

Eibar dantza egiten duen herria da eta hemen dauden dantza-talde eta dantzari kopuruari besterik ez zaio begiratu behar hortaz ohar-tzeko. Adin guztietako jendeak egiten du dantza gure herrian, mota askotako dantzak egiten dira eta horren erakusle dira iaz Dantzaren Nazioarteko Egunean ikusi genituen irudiak.

Aurten, are irudi ikusgarriagoak eskainiko dituzte, hiru talde berrik hartuko baitute parte ekimenean. Horrela, honako hauek izango dira hilaren 29ko ekimenean parte hartuko duten dantza-taldeak: Biraka Dantza Taldea, Ballet Eibarres, Flamenko Taldea, KAXA, Kezka Dantza Taldea, Koa Dantza Estudioa, Neledantza, Os Galaicos Casa As Burgas eta Untzagako Jubilatuen Etxeko Dantza Taldea.

Auzoetan lehenik, Untzagan gero

Datorren asteko zapatuko saioa 17:30ean hasiko da eta dantza-taldeekiazko dinamika berdinari jarraituko diote. Horrela, lehendabizi Torrekuako eta Urkizuko parkeetan dantzak eskainiko dituzte, gero Ego Gainen (El Corte Ingles parean) eta Errebal Plazan arituko dira eta, azkenik, Untzagan.

KAXA guneko Marta Prolek azaldu digunez, horrela antolatuko dira egun horretarako: “Torrekuan Biraka Dantza Taldea, Koa Dantza Estudioa eta Kezka Dantza taldea egongo dira, eta hor amaitzerakoan, Ego Gainen Koak eta Birakak egingo dute dantza. Bestetik, Urkizun KAXA, Neledantza eta Ballet Eibarres arituko dira, eta hiru taldeak Errebal Plazan ibiliko dira ondoren”.

Ikusten denez, dantzariak erdigunerantz joango dira poliki-poliki eta, horrela, Untzagan emango diote amaiera handia ekitaldiari. “Bertan,



18:30ean, Flamenko Taldea eta Untzagako Jubila-tuen Etxeko Dantza Taldea ibiliko dira dantzan, eta 19:00ak inguruan, herriko auzoetan ibili diren beste taldeek ikuskizunak eskainiko dituzte banan-banan”, azaldu digu Prolek.

Dantza-taldeen ikuskizuna 20:00ak inguruan amaituko da, baina horrek ez du esan nahi egitaraua orduan amaituko denik. Izan ere, 20:30ean Mugi Panderoa talde eibartarrak erromeria eskainiko du eta dantza egiten jarraitzeko aukera emango die bertaratzen direnei.

Dantza bistaratu

Iazko egitasmoa Eibarko dantza-taldeen ekimenetik sortu zen eta oso erantzun ona jaso zuen taldeen zein herritarren aldetik. “Hasteko, Dantzaren Nazioarteko Eguna Eibarren ospatu eta eguna bera ezagutarazi nahi genuen”, diosku Prolek. “Orduan, den-dena toki berean zentralizatu beharrean, ospakizuna herri guztira eramanez nahi izan genuen, eta dantzak herriko toki ezberdinetan eskaintzea proposa izan zitekeela pentsatu genuen”.

Prolek esan digun bezala, “oso egun polita da”, eta Eibarren dantzaren inguruan egiten diren gauzak ikusarazteko balio du. “Jende askok egiten du dantza Eibarren. Dantza-talde asko dago eta mota askotako dantzak egiten dira. Oso aberasgarria da hori”, Prolek esan digunez.

Herriko auzoetan eta Untzagan dantzez gozatu ondoren, Mugi Panderoak erromeria eskainiko du



Iaz egun bezala, aurretik ere herriko auzo ezberdinetan dantzak eskainiko dituzte herriko dantza-taldeek.



Eskilarek zerua floridade bihurtu zutenekoa. PEDROARRIOLA

Osoro garaile eta Ledesma zazpigarren Sevillako Half Triatloian

Gure herriko triatletak nagusitasun handiz bereganatu zuen domekan Sevillan jokaturako X. Nutrisport Half Triatloia. Ia 600 parte-hartzaile izan zituen proban Osorok 3h37'07"ko denbora egin zuen eta berarengandik 10 minutu eta 39 segundora helmugaratu zen Julen Diezek eta 17 minutu eta 51 segun-

dora iritsi zen Alberto Gomezek osatu zuten podiuma, berarekin batera. Ohikoa bihurtu duen eran, gaur egungo neguko triatloiko Espainiako txapeldunak batez ere bizikleta gaineko tartean handitu zuen besteekiko aldea.

Estatuan jokatzeko denboraldiko distantzia erdiko lehen triat-

loian, Peñota Dental Alusigma taldearekin parte hartzen duen Osoro bosgarren postuan irten zen uretako probatik, baina bizikletaren gainekoa amaitzerako lider ziholan, tartearekin gainera. Sevillako proba horretako emakumezkoen mailakoa Kat Mills-entzat izan zen, Lucia Blanco eta Rocio Muñozen aurretik.

Bestalde, Miguel Ledesma JAZ Eibar Triatloiko ordezkaria, lasterketa ezin bikainagoa eginez, zazpigarren postuan sailkatu zen. Proba igerian egiteko 1.900 metrokoarekin hasi zen eta horren amaieran Ermuko triatloilaria hirugarrena izan zen uretatik ateratzen. 86 kilometroko bizikleta gaineko proban ere ondo moldatu zen, arazoak izan bazituen ere aulkiarekin, behar baino jaitsi zitzaizkielako. Eta azkenean antxintxiketan egin beharreko maratoni erdian ordura arteko postuari eutsi zion.



Mecalbe Eibar Eskubaloiak maila nazionalen jarraituko du

Zapatu arratsaldeko partidua oso berezia aurreikusten bazen, oraindik eta bereziagoa egin zuen bertan taldeek erakutsi zuten berdintasunak. Lehen zatia amaieran 7-8koa erakusten bazuen markagailuak nafarren alde, bigarrenen Mecalbe Eibar aurretik joan zen denbora gehienez, baina beti ere alde

handirik ezin hartuta. Gol bakoi-tzak pisu berezia hartu zuen tarte horretako 30 minutuetan eta, partidua amaierara gerturatzen zen neurrian, urduritasuna toki handiago hartzen joan zen jokalarien artean. Azken minutuan, gainera, Lagunak-ekoek gola sartzeko aukera ere izan zuten, baina eibartarrek

ondo defendatutako azken jokaldiak Zilarrezko Ohorezko Mailari eustea ekarri zion Andoni Perezek zuzentzen duen taldeari. Ane Montiel izan zen oraingoan eibartarren aldeko goleatzaile nagusia. Zaletuek ere esanahi handia izan zuten lorpen horretan, denbora guztian animatzen jardun zuten-eta.



Eibar Rugbyk Getxori irabazi zion Euskal Ligako finalerdian



Euskal Ligaren finalerdiko lehenengo partiduan Eibar Rugby Taldeak jakin izan zuen Getxori irabazten eta, Unben taldea indartsu dagoela erakutsiz, 30-19ko aldearekin nagusitu zen. Dena dela, jakinda fase erregularrean bizkaitarrek 47-31 nagusitu zitzaizela eibartarrei, gauzak airean egoten jarraitzen dute oraindik finalera zein iritsiko den begira. Maiatzaren 7an jokatu da itzuliko partidua eta hortik aterako den finalistak tituluaren bila jardungo du maiatzaren 21ean zelai neutralean.

Iberdrola Ligari dagokionez, aurreko domekan Cristina Guntinek zuzentzen duen taldeak 26-17 galdu zuen A Coruña fase horretako azken jardunaldian. Dena dela, une honetan dauden laugarren postuari eusten badiote (kirol goi erakundeek hartuko duten azken erabakiaren zain daude armaginak) asteburuan lauko play-offeko finalerdia jokatu beharko dute Sevillan liga-ko lehen fasea irabazi duen bertako Corteva Cocos taldearen aurka (bihar 10:30ean).

Hiru buruz-buruko eta binakako bat gaurko Astelenako jaialdian

Lau eta erdiko eskuz banakako txapelketari ekingo diete gaurkoan Klub Deportiboko pilotari federatuek gure herriko pilotaren Katedralean. Arratsaldeko 18:30ean hasiko den jaialdian seniorrak izango dira lehenengoak jokatzeko, Azkargorta eibartarra eta Bergarako Etxezarreta protagonista bihurtuz; jarraian kadeteek hartuko dute lekukoa, Deportiboko Ekhi Azpilikueta eta Lizarralde oñatiarra tarteko direla; kadeteak izango dira baita hirugarren partiduan ere, Manex Gisasola eibartarra eta Aretxabaletako

Errasti, hain zuzen ere. Azkeneko norgehiagokan, errendimenduko infantilen mailako Gipuzkoako Udaberri txapelketaren hasieran, Xuban Varonak eta Alex del Reyk osatutako Deporrek bikoteak nor baino nor jardungo du Amezketako Zazpi Iturriko ordezkarien aurka.

Eibarko Pilota Eskolako pilotarietara, bestalde, Astelenan egiten dituzten entrenamenduekin jarraitzen dute. Bertako benjamin eta alebin mailakoek San Juan Txapelketa eta Amañakoa dituzte ikuspuntuan.



Foball-zaletuko taldeek berriro ekingo diete Kopa txapelketari

Aste Santuko oporrak atzean lagata, asteburu honetan berriro helduko diete Kopa txapelketari. Edizio honetan bi multzotan banatuta jokatzen den Kopa lehiaketak atek zabalduko dizkio bihar eta etzi txapelketako seigarren jardunaldiari. Lehen itzulia amaituta, Feredu Bar EzDok eta Adahi Eraieder taldeak daude multzoetako lidergoetan.

Adahi lehen multzoko buru dugu, zazpi punturekin, seirekin Garajes Garcia jarraitzen dio, hiruna dituzte JMR Tankemans eta America Sport taldeek, eta batekin dago Bali Center Sports. Fereduk bigarren multzoa lideratzen du, zortzi punturekin, Bar Txoko Ligako irabazlea seirekin atzetik duela, hiru ditu TX4 Fitness Akats, birekin

dago Gastro Gilda, eta bakarra du Bar Banala L. Ruedak.

Asteburuan honako partidua jokatuko dira Unben: zapatuan, Bar Banaka vs Feredu (09:00) eta Txoko vs Gastro Gilda (10:30); domekan, America Sport vs Garajes Garcia (09:00) eta Bali Center vs Adahi (10:30). TX4 Fitness-ek eta JMR Tankemans-ek atsedena hartuko dute.

Eibar FT-ko ordezkariak euren sailkapenetako gorenean dihardute

Liga txapelketak bere amaierara heltzen doazen une honetan, Eibar FT-ko ekipo gehienak aukera guztiak zabalik dituzte euren lehiaketetan mailaz igotzeko. Horrela, Smat-Bank Ligako ordezkaria lidergoari eusten dio gaur, 21.00etan, Ipuruan hartuko duen Zaragozaren aurkako partiduan bezperan. Federazio 1. Mailako taldeak, bestalde, Deportivo du aurrean, puntu bat gehiagorekin, etzi goizean, 11:30ean, Cacereno Unben hartzeko prest dagoenean. Federazioko 3. Mailan jokatzeko



Vitoria-Leiosren partiduko irudia.

duen Vitoria filialak bigarren jarraitzen du igoera play-offari begira eutsi beharreko postuan, hain zuzen. Maila bat beherago jokatzeko duen Urkok, bestalde, sei puntuko alde ateratzen dio Añorga bigarrenari. 1. Maila Nazionalean jokatzeko duen emakumezkoen bigarren taldea ere bigarren da sailkapenean. Behin harrobiko taldeei erreparatuta, jubenil mailako Ohorezkoa bigarren da, Athletic-en atzetik, eta Nazional mailan jokatzeko duen jubeniletako bigarren taldea zortzigarren da.

Odiaga soraluzetarra lider Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketan

Aurreko zapatuan Soraluzeko San Andres bolatokian jokatuak tiralidiana irabazi eta gero, talde horretako Lander Odiagak sailkapeneko lehen postua eskuratu du. Parte hartu zutenen 65 bolaritik soraluzetarra izan zen bakarra sei txirlo etzaten, bostekin geratu ziren San

Miguelen Javier eta Imanol Osoro Asola Berriko Gari Rodriguezekin batera, eta laurekin geratu zirenen artean izan zen Bittor Astigarraga eibartarra ere.

Orain Odiaga da gorenean, atzetik Eibarko bolatokiko bi ordezkari dituela: Pedro Gomez txirlo bakarrera

eta Gari Rodriguez hirura. Emakumezkoen sailkapenean Jone Perales eibartarrak Isana Gorosabel eskoriatzarrak harrapatu du lidergoan eta taldekakoan Asola Berri A-k San Miguel A-rekiko 13 txirloko tarteari eusten dio. Hurrengo tiraldia Leintz-Gatzagan izango da bihar.

Ibai Villatek irabazi zuen kadeteen mailako Pneumax Saria

Domeka goizean jokatuak kadeteen mailako VI. Eibarko Txirrindulari Elkartea / Pneumax Sariak hasi eta berehala markatu zuen handik ordu eta erdira zeintzuk izango ziren lehenak helmugaratzen. Probaren seigarren kilometrorako osatu zen bost laguneko ihesaldiak erabaki zuen azkenean zeinek bereganatuko zuen lasterketa Urkizuko helmugan. Baque Team taldeko Ibai Villatek irabazi zuen, 1h43'3"ko denborarekin, batzaz beste orduko 39'59 kilometro eginez. 20 segundora helmugaratu ziren Ipar Maquinako Joan Cardona eta Cupra Galdakauto-Pan Menesako Mikel Sanz. Azken ho-

rentzat izan zen lehiakortasunaren saria eta Iñaki Astigarragak eraman zuen Debabarreneko onenarena. Berritasun bezala aurten "farolillo

rojo" edo azken sailkatuarentzako saria ere izan zen, Oberena Harategiak emandakoa: Jurdan Regillaga izan zen txirrindulari hori.



“Lekeitiar adoptatua naiz eta hori asko islatzen da nigan eta nire obran”

SONIA GONZÁLEZ • Idazlea



Sonia González (Barakaldo, 1977) izan da aste honetan egin den Harixa Emoten literatura tertuliako gonbidatua. “Erreka haizea” 2018an argitaratu zuen liburuarekin etorri da Eibarrera, 128 testu laburrez osatutako lanarekin. Boterea, isilpena eta heriotza gai nagusi hartuta, begirada sozial eta feminista batek zeharkatzen du lana, adierazpen desberdinei lekua emanez, saiakera akademikotik aldentuta. Ez dira horiek, baina, liburuan azaltzen diren gai bakarrak; euskalduntasunari edota “emakume izatearen isilpenari” ere lekua egin baitie idazle bizkaitarrak.

Oso kontakizun pertsonalak biltzen ditu liburuak, baina ez dituzu zuri gertatutakoak soilik kontatzen, hausnarketa egin duzu haien inguruan. Hausnarketa-liburua dela esango zenuke?

Liburu arraro edo kurioa da. Leire López Ziluaga Susako editoreak eta biok ez genekien oso ondo zelan argitaratu. Poema liburuak ez da, hori argi dago, nahiz eta zenbait atal poemak edo prosazko poemak izan. Ez da nobela, zenbait harik zeharkatzen duten arren. Baina saioa ere ez da, ez behintzat saio “kanonikoa”. Hausnarketa liburuak da, bai. Orokorrak izan nahi duten hausnarketak, norberaren esperientzia, bizipen edo gorputzetik abiatuta, irakurlea bere barruaz eta bere inguruaz hausnartzera eraman nahi dutenak.

Liburuko alderik ilunena heriotzari buruzkoa da; suizidioaz aritu zara, eta beren buruaz beste egin zuten emakume idazle askorengana hurbildu nahi izan duzu. Zergatik?

Nire bizitzako momentu latz batean sortu zen Erreka haizea. Eurengana hurbiltzeko premia sentitu nuen. Ez eurekin parekotasunik bilatzeko. Ene! Hori itzelezko handiuste eta harrokeria izan zatekeen! Izen lar handiak dira guztiak! Idazleengana baino, emakumeengana hurbildu nintzen, idazleak izatekeran, barruan zeramaten pisua islaturik utz zezaketelakoan.

Spoilerra: ez dago ondorioz, are gutxiago ondorio orokorrik, jakina. Baina hausnarketa polit batzuetarako aukera eman zidan...

Botereaz ere egin duzu hausnarketa... Uste duzu nahikoa hausnarketa egiten dugula eguneroko bizitzan botereari edo botere-sareei buruz?

Botereaz hausnarketa asko egiten eta egin dira. Hala ere, horietako gehienak “makroan” geratzen dira. Eta hori ondo dago. Inportantea da. Baina, zuk diozun moduan, eguneroko bizitzara jaisteak ere garrantzia dauka. Liburuan lagunarte bat azaltzen da. Zergatik lagunartea? Beste esparru batzuk ez bezala, lagunartek horizontalak direlako edo izan beharko lirakeelako. Hala ere, horrelakoetan ere -eta hau den-denok espermentatu dugu geure bizitzetan- botere-harremant eta sareak sortzen dira. Hurbilketa bat egiten ahalegintzen naiz liburuan.

Azpiatal nagusiak boterea, isilpena eta heriotza dira baina beste gai batzuei ere heldu diezu. Hizkuntzari egiten diozu erreferentzia, guraso etorkinen alaba euskalduna zarela eta “zuenak” euskara mutilatua dela diozu...

Lengoaia altxorra da, izaki humano egiten gaituena, pentsamendu konplexuak eratzeko modua. Hizkuntza eta, bereziki, euskara, beste gai errekorrente bat

"Liburua frustrazioz eta gorabeheraz betetako sasoi bateko egunerokoa izanda, ura leporaino izan dudala sentitu izan dut"

da niretzat. Hizkuntzaz hausnartzea ere oso gustuko dut, zelako prozesuak gertatzen diren buru barruan... Ikasiriko hizkuntzaz bizitzeak uste dut aukera handiak ematen dituela horretarako. Lehen hizkuntzak eta bigarren hizkuntzak ezberdin jokatzen dute gure burmuinetan eta oso agerikoa da hori. Agerikoa eta txundigarria. Horretaz gain, berbak sentipenekin loturik daude. Zenbat hitzun, hainbat zentzun. Euskarara "mutilatuarena" bizi osoan lagunduko nauen pena da, ez baitut sekula txikitan eta etxean ikasten diren esamolde, modu, atsotitz, esakerarik izango. Horrexek ehuntzen du jatorriaren haria (lurreldearekin, leinuarekin lotzen zaitu, jarraikortasun horretan beste pieza bat bihurtzen zaitu). Gaztelaz -edo, hobeto esanda, andaluzez- bai, asko eta aberats. Eta halakoak mingainetik irristatzen direnean gustu eta zapora ezin goxoagoa uzten dute. Horrexek ematen dit pena. Baina den-dena ezin da eduki!

Esan izan duzu literaturarekin adiskidetzeko idatzi zenuela liburua... Haserre zinen?

Gutziz. Gutziz, zeharo eta arras! Uste dut, momenturen batean, literaturari berez daukana baino askoz ahalmen handiagoa eman niola neure buruan. Ateok ere ibiltzen gara askotan, zelan edo halan esateko, salbazioaren bila, baina literaturak ez zaitu salbatzen, ez zaitu eraldatzen. Ahulezia eta miseria guztiek hortxe diraute. Suposatzen dut horiek ere maitatzen ikasi behar dugula, ezta?

Barakaldon jaio zinen baina Lekeition bizi zara. Liburuan ere antzeman daiteke zein berezia den zuretzat Lekeitio, ezta?

Barakaldoko eta "Labe Garaietako alaba" izan arren, hori ez baitut sekula ukatuko eta beti izango baita nire



izakera guztiz markatu duen zerbait, aspalditik bizi naiz Lekeition. Lekeitiar adoptatua naiz. Eta hori ere uste dut asko islatzen dela nigan eta nire obran. Hiria eta Herria gai errekkurrenteak dira niretzat, harik eta ia pertsonaia bihurtu arte. "Erreka haizea"-n, esaterako, "Labartza" herria azaltzen da, edonork Lekeitiorekin lotu lezakeena, jakina. Tokiek ere eratu egiten gaituzte. Eta zer esan aspaldi Azkuek edo Eusebio Erkiagak zeharkatzen zituzten kale berberak zapaltzeaz?

Zer iruditzen zaizkizu irakurle-taldeak? Zer dira idazle batentzat horrelako saioak?

Idazketa oso ekintza bakartia da. Ekintza bera baino -suposatzen dut diziplina artistiko guztiak halakoeak direla-, gerora datorrena da, batez ere, bakartia. Musika egiten denean, kontzertuek aukera ematen dizute publikoarekin konpartitzeko. Liburu bat amaitzen duzunean, eman egiten duzu eta ez dakizu zer gertatuko den berarekin, ez dakizu inora helduko den, norbaitek jasoko ote duen, ezta zelan jasoko duen ere. Liburuak botiletan sartzen ditugun mezuak dira. Irakurleekin denboratxo bat partekatu ahal izateak ekintza konpartitua bihurtzen du.



Umorezko bakarrizketa Garazi San Martinekin

Arrate Kultur Elkartek eta Nalua Eibarko talde feministak antolatuta, “Bihotz, bi hots, bi txotx” Garazi San Martin Boj-ek umorezko bakarrizketa aurkeztuko du gaur, 19:00etan Topalekuan. Azaldu dutenez, “Garazik bere maitasun istorioak kontatuko dizkigu, umorea ardatz nagusia izanik. Maitasun erromantikoari kritika sakona da eta horren ildora hainbat gai ukituko ditu: polimaitasuna, espazioen gestioa, mugak, sare sozialak... Dena bizipen “bollero” batetik. Apirilaren 26an ikusgarritasun lesbikoaren eguna izanik, momentu ezin aproposagoa gaia gure artea ekartzeko”. Sarrerak 5 euro balio du eta saioaren ostean mokadua jateko tartea egongo da, elkartzeko direnek janariz lagunduta saioan entzundakoak konpartitzeko aukera izateko.



“Carol”, Pagatxaren gaurko zine-forum saioan

Pagatxa Emakumeen elkarteak, Eibarko Berdintasun zerbitzuarekin elkarlanean antolatuta, gaur zine-forum saioa egingo da, 18:30ean, Portaleko areto nagusian. Oraingoan “Carol” Todd Haynesek zuzendutako filma emango dute eta, ondoren, Izaskun Rodriguez Elkorok dinamizatutako solasaldia hasiko da. Sarrera librea da.



Andretxeko liburutegi-zerbitzua ematen hasi dira

Andretxeko liburutegi-maileguaren zerbitzua berriro martxan dago, emakumearen etxe berrian, Isasi kaleko 11. zenbakian. Liburutegia generoan eta berdintasunean espezializatuta dago, eta aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen da. Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak zeintzuk diren ikusteko Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak udalaren webgunean duen azpiatalean begiratu daiteke.



Mursegoren saio berezia, Liburuaren Eguna ospatzeko

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna dela ospatzeko, Juan San Martin udal liburutegiak saio berezia antolatu du domekarako: Maite Arroita Jauregik (Mursego) “Biblioteken lana” izenburuko emanaldia eskainiko du, liburutegian bertan, 18:00etan hasita. Harkaitz Cano, Katixa Agirre, Itxaro Borda, Miren Amuriza eta beste idazle askoren testuak errezitatuko ditu Mursegok, nola ez, musikarekin lagunduta.



“Ekilibrista” aurkeztuko du gaur Markos Untzetak

Markos Untzeta kantari eibartarrak gaur aurkeztuko du “Ekilibrista” bere seigarren diskoa, Coliseo antzokian 20:30ean hasiko den kontzertuan. Markos Untzeta-ren biografia musikalean ohikoak diren estiloak eta eraginak biltzen ditu bere lanik berrienak ere: rock amerikarra, bluesa, folka, countrya... Untzeta-rekin batera Iñaki Ortega (bateria), Giovanni Zanon (gitarra), Walter Tuzzeo (baxua) eta Mikel Gaztelurrutia (teklatura) arituko dira. Kontzerturako sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Larrain-dantza errepasatzeko saioak

Maiatzean ospatuko den Euskal Jaiari begira, larrain-dantza errepasatu nahi dutenentzat saioak hasi dira aste honetan eta, maiatzaren 17ra arte, eguaztenero egingo dira, 19:00etatik 21:00etara, Arrateko Andra Mari ikastetxean (Urki auzoan). Arrate Kultur Elkarteak eta Klub Deportiboak antolatu dituzte dantza klaseak eta, izena emateko, arratekultu@gmail.com helbidera idatzi edo 638284912 telefono zenbakira deitu daiteke. Bazkideentzat dohainik izango dira eta gainerakoek 5 euro ordaindu beharko dituzte.



Aste honetan hasi dira danborradetarako entseguak

Aste honetan hasi dira Sanjuanetako danborradetarako entseguak, hurrekin, eta datorren astetik aurrera helduen danborradarako saioak ere egingo dituzte astero, jaiak ailegatu bitartean. Eguaztenetan izango dira entseguak, bi taldeentzat: lehenengo umeena egingo da, 19:00etan, eta jarraian hasiko dira nagusiak, 20:00etan. Betiko tokian, Bittor Sarasketa kalean dagoen Beistegi eraikinean egingo dituzte.

Barixakuan itxiko da familien arteko ginkanarako izen-ematea

Maiatzaren 5ean egingo da “Familia arteko ginkana”, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eta Astixaren eskutik. LHko ikasleei eta haien familiei zuzendutako ekimena 17:15ean hasi eta pare bat orduan amaituko da. Taldeko kideak familia berekoak edo lagunak izan daitezke, baina talde bakoitzean bi-lau heldu egotea eta euskara ondo ulertzea ezinbestekoa da. Parte-hartzaileek Untzagan jasoko dute lehen pista eta, amaieran, denek jasoko dute saria eta sorpresa. ...eta kitto!-n eman daiteke izena, telefonoz (943200918) edo ongietorri@etakitto.eus helbidean. Astixan ere eman daiteke, bulegoan edo telefonoz (943206231).

Pasodobleak joko ditu Bandak




Eibarko Musika Bandak kontzertua emango du domekan, 12:30ean Coliseo antzokian. Asteburu honetako saioa Andoni Ariznabarretak zuzenduko du eta eskainiko duten

programa osatzeko pasodobleak aukeratu dituzte. Sarrera doan izango da, baina aurretik gonbidapena hartzeko aukera dago.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	8		7	9		
6				4		3
	1	3		6		
		9	8			
	5	1	2		3	8
				7	3	
			3	6	4	
4		6				1
		7	5		3	





soluzioa

S U D O K U

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			7	6		
				1		3
			6	4	2	9
	2	4		7	3	5
1				8		
	9	7	5			2
		6	7	2	9	
	7		1			
		9		3		

soluzioa



L A B I R I N T O A

Apirilak 21 / 27

BARIXAKUA 21

ZINE-FORUMA

18:30/20:30 "Carol" (Todd Haynes) filmari buruzko zine forum saioa. Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).

UMOREZKO BAKARRIZKETA

19:00 "Bihotz, bi hots, bi txotx", Garazi San Martin Bojen bakarriketa. 5 euro. Topalekua.



MUSIKA

20:30 "Ekilibrista", Markos Untzetaren kontzertua. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



DOMEKA 23

IRTEERA

09:00 Hegaztiak behatzeko irteera, Eibarko Baso Biziakaren eskutik. Urkizu (abiapuntua).



KALEJIRA

11:30/13:00 Usartza Txistulari Banda. Eibarko kaleetan.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Doan. Coliseo.

LIBURUEN

NAZIOARTEKO EGUNA

18:00 "Biblioteken lana", Maite Arroitauregi (Mursego) musikagilearen eskutik. Juan San Martin liburutegia.



MARTITZENA 25

ZINE-FORUMA

18:30/21:00 "Norte salvaje" dokumentalaren proiektzioa eta mahaingurua. Coliseo.

EGUAZTENA 26

IBILALDIA

08:09 Ikasten elkartearen eskutik: Donostia (1. Etapa)-Añorga txiki. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua, Ardantzan (**08:11** Estazioan).

TAILERRA

17:30 Ipuin bat irakur dezagun" 4-5 urte bitarteko haurrentzako tailerra. Juan San Martin liburutegia.



DANBORRADA

19:00 Umeen entsegua.
20:00 Helduen entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa).

EGUENA 27

HITZALDIA

10:00/12:00 "Emakume esploratzaileak", Mikel Alberdiren (Zumalakarregi museoko zuzendaria) eskutik. Euskaraz. Sarrera librea. Armeria Eskola.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaielentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

ERAKUSKETAK

Apirilaren 23ra arte:

- **"XXV. EGUEN ZURI" argazki-lehiaketako lanak.** (Topalekua).

Apirilaren 30era arte

- **"DARKTEAM", argazki erakusketa.** (Depor taberna)
- **CONXITA LOPEZ-en argazki erakusketa.** (Portalea jatetxea)
- **"ANDRETXEA, GURE GELA PROPIOA", Eibarko 12 emakume artistaren lanak.** (Andretxea).
- **"Gazte ARTEan". Eibar BHI.** (Portalea).
- **"EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA".** (Portalea).
- **"EIBARKO SOZIALISTEN 125 URTEAK".** (Herriaren Etxea)).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

21ean (BARIXAKUA) KONTZERTUA
20:30 / Ermua Antzokia "Sorotan Bele gogoan".
22an (ZAPATUA) KONTZERTUAK
19:00 / Kalean "Udaberriko Jaia".

ELGOIBAR

22an (ZAPATUA) KONTZERTUAK
12:00 / Maalako parkea EME Eguna.

DEBA

23an (DOMEKA) KONTZERTUA
19:00 / Kultur Elkarte Ruper Ordorika. Kultur Ekin.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **22an:** 19:45, 22:30
- **23an:** 20:00
- **24an:** 19:30

“En temporada baja”
UMOREZKOA



2022/Espainia/93'
Zuzendaria: David Marqués
Aktoreak: Antonio Resines,
Edu Soto, Coque Malla
Komedia/Lagunartea/Kanping

2 ARETOA

- **22an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **23an:** 17:00, 20:00
- **24an:** 19:30

“Los tres mosqueteros”
ABENTURAZKOA



2023/Frantzia/121'
Zuzendaria: Martin Bourboulon
Aktoreak: François Civil,
Eva Green, Vincent Cassel
Dumazen liburuaren egokitzea

ANTZOKIA

- **22an:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **23an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **24an:** 19:30

“20.000 especies de abejas”
DRAMATIKOA



2023/EAE/129'
Zuzendaria: Estibaliz Urresola
Aktoreak: Sofia Otero,
Patricia Lopez, Ane Gabarain
Transexualitatea/Hurtzaroa

ANTZOKIA

- **22an:** 17:00
- **23an:** 17:00

“Oink”
ANIMAZIOZKOA



2022/Herbehereak/72'
Zuzendaria: Mascha Halberstad
**Komedia/Animaliak/
Familiarra**



Isabel Escudero Martin

2023/04/16

MILESKER
une latz hauetan gurekin
egon zareten lagun eta
famiariako guztioi.

- ETXEOAK -





Eugenio Zubia Bastida

6. URTEURRENA
2017/04/21

**“Zure irribarre
eta samurtasuna
betirako
izango dira
GURE ARTEAN”**

- ETXEOAK -



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eu



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behariko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **OIHENART**, gure etxeko Dungeon Masterra, hillaren 18xan 12 urte bete zenduazten-eta. Patxo haundi bat amatxo, aitatxo eta Aioraren partez.



Zorionak, **NAIA** Mondragon, hillaren 14an 12 urte bete zenduazten-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **INTZA!!!** Domekan 9 urte beteko dozuz!!! Patxo haundi haundi bat etxeko danon partez. Asko maitte zaittugu!!!



Zorionak, **AITZ**. Astelehenian 2 urte beteko dozuz-eta. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **OIER** Errekalde Ares, martitzenian 8 urte egin zenduazten-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Iratiren partez.



Zorionak, **LUKEN**, eguaztenian 11 urte bete zenduazten-eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Segi holakua izaten. Muaaaa!!



Zorionak, **IRATI**, domekan 4 urtetxo beteko dozuz-eta. Musu erraldoia famelixa guztiaren partez. Illargiraiño eta buelta maite zaittugu!!



Zorionak, **LUCIA!!** Astelehenian 6 urte egingo dozuz-eta!! Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Pablo zure anaxaren partez! Zoragarrixa zara.



Zorionak, **ELIXE!!** Gure sorgintxuak gaur 2 urtetxo betetzen dittu!! Asko asko maitte zaittugu! Patxo erraldoia Pello eta Txominen partez.



Zorionak, **DANEL**, hillaren 25ian 2 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat aitatxo, amatxo, Nahia eta famelixa guztiaren partez! Asko maite zaittugu.




Zorionak, **NAIA!** Gure etxeko printzesa haundixak 11 urte betetzen dittu. Musu haundi bat zure ahizpa Irati era gurasuen partez.



Zorionak, **NAIA** eta **MARKEL**, gaur 11 urte betetzen dozuez-eta. Betiko moduan, topera ospatuko dogu. Musu haundi bat Irati eta Anneren partez.



Zorionak, **MARKEL** Lasuen, gaur 11 urte egitten dozuzelako. Patxo pottolua aitatxo, amatxo eta, batez be, Anneren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **OSKAR** (atzo) eta **NAHIA** (bixar 14 urte), zeuen urtebetetzian. Ondo-ondo ospatu bixak. Musu haundi bana famelixa eta laguneren partez.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

- 1.2. Errentan
 - Matrimonioak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667060292.
 - Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatik. 657795876 (arratsalde).
 - Etxebizitza alokagai Eibar erdialdean. 688667994.

- Pisu alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta oso argitsua. Guztiz berriztuta. Igogailuarekin. Bikote baten-dako aproposa. 637587823.
- Pisu txikia alokagai Eibarren. 2 logela. Igogailurik gabe. 500 euro. 627794822 / 687078777 (Whasappez edo arratsalde).

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 631687276.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 631511111.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste lanetarako. 603169890.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 688627689.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Orduka. 613744564.
- Emakumea eskaintzen da pisu, hotel edo egoitzetako kamarera bezala eta baita garbiketarako egiteko ere. Orduka. 671763558.
- Emakumea eskaintzen da administratibo bezala, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 624910331.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak (ziurtagiri sozio-sanitarioa) zaintzeko. Orduka. Autoarekin. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (ziurtagiri sozio-sanitarioa) edo umeak zaintzeko. 688779828.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauz ere. 612583671.
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak arratsalde zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 641456514.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 600836168.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 613287661.
- Mutila eskaintzen da tabernetan edo biltegietan lan egiteko. 747451984.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 643577589.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 747480623. Yanelis.
- Gizona eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 747480625. Daniel.
- Gizona eskaintzen da pintura, erreformak, eraikuntza eta iturgintza lanak egiteko. 747480622. Daniel Jose.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. 642855788.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko (titulu sozio-sanitarioa) eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 627230784.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631309160.
- Emakumea eskaintzen da gar-

- biketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 624956340.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (titulu sozio-sanitarioa). Baita asteburuetan ere. Orduka. 654210024.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 632980833.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 631722031. Fatima.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (titulazioarekin) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. 685724861...

4.2. Langile bila

- Odontologoa behar da klinika batean lan egiteko. Interesatuak curriculum-a bidali: hortzclinika.06@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskeraek

- Kontabilitate klaseak emateko pertsona behar da. Administrazio Kudeaketa modulorako. 669719349.

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patricia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.4. Bestelakoak

- Maiatzaren 7an Ficobara (Correos-eko OPE) joango den autoduna edo talde baten bila nabii, elkarrekin joateko. 650113060.

gremioen gida



943-206776

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac **trinmer**
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com

TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSTRUMENTAZIOA, TROKADURAK, ERREFORMAK
E.I.T. ERAIKUNTZA, ERREFORMAK, IGELTSEK

AJT Ziburtasuna S.L.P.
Barrena, 6 - beheko ezki.

KRISTALAK

ACHA Kristaldogia
HELBIDE BERRIA **J.A. GISASOLA, 4 - ac**
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@crystaleriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arrikascano Zabian

AROTZAK

ulmar S.L.
metalazio maiztasunak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (tel. 943 12 74 01)

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Azitoain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak / Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@gmail.com

Tel. 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRITZAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922 www.thelecer.com



EGIN

AURREMATRIKULA!

Aukerarik onena, etorkizuna duena



ArmeriaEskola^x

